


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,1 gehitu ziren 2017ko otsailean aurreko hilaren aldean

2016ko otsailaren aldean %0,9 gehitu

2017ko otsailean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,1 gehitu zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,9, EUSTATEN datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,2 gehitu.

Otsailean Etxegintzaren atalean %0,2ko gehikuntza aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean baita ere. Bi azpisektore hauen urte artekoak: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,4 gehitu eta Obra Zibilekoenak %4,0.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artean urte artean (2017ko otsaila 2016koaren aldean) prezio hazkunderik handienak: *Petrolio fintzea* %46,8; *Metalurgia* %6,5; *Makineria* %1,7. Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: *Kautxu eta plastikoa* (%-3,7); *Material elektronikoa* (%-1,1) *Energia elektrikoa eta gasa* (%-0,7), *Industria kimikoa* (%-0,7).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2017ko Otsaila

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,7	0,1	0,9	0,9
Eraikinak	102,8	0,1	0,5	0,8
Obra zibila	102,3	0,1	3,3	1,2
LEHENGAI	101,4	0,2	0,9	0,8
Eraikinak	101,5	0,2	0,4	0,8
Obra zibila	100,7	0,2	4,0	1,2
LAN-ESKUA	107,4	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)